

1. Idazlaririk zer dio Españolez.
2. Odola beroa duela Españolek.
3. Emazue odol bero horren behagun bat

II

ZERK EGIN DU ESPAINIA? 3

Arrotzekin bezala, elgarren artean bardin dire. Den gutieneko ez-bai bat aski dute, berehala *al kutchilo* joiteko. Iduri dute ez dakitela borrokatzen elgar *sangratu* gabe. *Sangre!* Odolaren eta odol ixurtzearen izen hori bera espainola da. Emozute^{*} odol...

Eta zerk emaiten othe diote jaidura tzar²⁵ hori? Odolaren ixurtzeko gutizia higuigarri hori, gizonen hiltzeko erretasun itsusi hori nondik othe dukete beraz espainolek? —Ez beren baitharik. Ezen erran dugun bezala espainolak berenaz bihotz ona du. Bada hor bertze zerbaite. Zer othe? Anhitzen aribera eta ene ustez ere zezen-guduetarik dathor aztura salbai²⁶ hori.

Alabainan²⁷ ardurenik begien aitzinean ikhusten duen hartara da tiriatzen²⁸ gizona. Hurrez errana da: zer ikhus, hura ikhas. Arren²⁹ halaber dezakezu erran gutarik bat bederaz. Edozoin adinetan haur handi batzu gira oro, edo bederen gutiz gehicnak. Ikhusten dugun hartaz gutiziatzen³⁰ gira, bereziki gure jaidurak azkarki³¹ phitz-arazten dituen hartaz; zernahi izan dadin, jan-hari, edari ala ikhusgarri. Hala nola gizon edalca ez dagoke arno³² edo bertze zerbeit edariren izena dakharren zerbeiti lothu gabe. Azkarrago eta nahiago du.

Alta³³ jan edanetakoa baino garhait-gaitzagoa da begiz husteko jaidura. Tripa bethe duenean gelditzen da edatetik gizon hordia³⁴.

Bainan begiak ez dire tripa edanez bezala bethetzen ikhusiz. Hortakotz³⁵ ere ez othe da errana: tripa baino goscago direla zenbeiten begiak? Nik uste nuke oroena ere hala direla.

Eta ora: huna zertara doan nere solasa: balin bada ikhusgarri dorpherik³⁶, gizonaren begiak eta zainak³⁷ phitzen dituenik, haren odola erakit-arazten duenik, hura da gizon eta zezen hil edo bizi borrokan ikhuste hori. Batek edo bertzeak behar dute han leher egin. Eta zezenaren orde gizona hil daitekkelako *beldur* hori bera zaiote *atsegin* bat ikhusiei.

* Emakoze = Emozue = donnez-le lui
Emakozute = Emozute* = donnez-le leur

III ADITZ IKASKUNTZA.

- | | |
|------------|---------------|
| 31. Dukete | 32. Dezakezue |
| 33. Dagoke | 34. Uste nuke |

31. UKAN - Potentiel probable.

Présent.	Imparfait.
Nik duket = je peux l'avoir	Nukeen = je pouvais l'avoir
Hik dukek/n = tu peux l'avoir	Hukeen = tu pouvais l'avoir
Zuk dukezu = vs pouvez - " -	Zinkeen = vs pouviez l'avoir
Harek duke = il peut - " -	Zukeen =
Guk dukegu = vs pouvons - " -	Zinkeen =
Zuek dukezu = vs pouvez - " -	Zinketen =
Heiek dukete = ils peuvent - " -	Zuketen = etc.

32. UKAN - Potentiel - Présent. O. Sing.

Nik ukar dezaket = je peux l'avoir
Hik ukar dezakek/n = tu peux l'avoir
Zuk - " - dezakezu = vs pouvez l'avoir
Harek - " - dezake = il peut l'avoir
Guk - " - dezakegu =
Zuek - " - dezakezu =
Heiek - " - dezakete = etc.

33. EGON - Potentiel présent.

Ni magoke = je peux rester
Hi magoke = tu peux rester
Zu zangke (zagozke) = vous pouvez rester
Hura dagoke = il peut rester
Gu gangke (gagozke) = nous pouvons rester
Zuek zangkete (zagozkete) = vous pouvez rester
Heiek dangke (dagozke) = ils peuvent rester

● formes usuelles d'après le radical